

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko apirilaren 9tik 14rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2018/04/10 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko martxoaren 23koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, notarioen eta kontratatutako langileen Estatuko II. hitzarmen kolektiboko 2018ko soldaten berrikuspenari buruzko akordioaren akta erregistratzen eta argitaratzen duena. **4887 xedapena – 4 or.**
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 23koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, desinfekzio, desintsektazio eta desratizazioko sektorearen hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **4888 xedapena – 28 or.**
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 23koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, aurrezki-kutxa eta -erakundeetarako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **4889 xedapena – 55 or.**

2018/04/11 Bizkaiko Aldizkari Ofiziala

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebatzen da Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001445011981). **42 or.**

2018/04/14 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko apirilaren 4koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, 2018ko otsailaren 6ko Ebazpeneko akatsak zuzentzen dituen; haren bidez, paperaren salerosketaren eta arte grafikoen zikloko hitzarmen kolektibo nazionalako 2018ko soldata-taulak erregistratu eta argitaratu ziren. **5105 xedapena – 1 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/04/09

- **OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. - Espainiako Osasun Sistema. Produktu dietetikoak.** - SSI/366/2018 Agindua, apirilaren 5koa. Horren bidez aldatzen dira urriaren 30eko SSI/2366/2012 Agindua, produktu dietetikoaren bidezko prestazioaren fakturazioko faktore komuna ezartzen duena, eta erabilera mediko berezietarako elikagai dietetikoak Osasun Sistema Nazionalako produktu dietetikoaren zerrendan sartzeko eta finantzaziorako gehieneko zenbatekoak ezartzeko oinarriak finkatzen

ditu irailaren 24ko 1205/2010 Errege Dekretuaren I. eta III. eranskinak. 4786 xedapena- 4 or

2018/04/11

- **ESTATUAREN BURUZAGITZA. - Estatuko Aurrekontu Orokorrak.** - 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen hutsen zuzenketa. 4910 xedapena - 1 or.

2018/04/12

- **LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE-ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. - Gidariak. Araudia.** - PRA/375/2018 Agindua, apirilaren 11koa, Gidarien Erregelamendu Orokorraren IV. eranskina aldatzen duena (maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuak onartua). 4958 xedapena - 12 or.

2018/04/13

- **EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA. - Aseguruak.** - Ebazpena, 2018ko martxoaren 27koa, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Lehendakaritzarena, zeinaren bidez onartzen baitira aseguru-erakundeek bildutako errekaruak bide elektronikoz aitortu eta sartzeko ereduak. 5001 xedapena - 11 or.

2018/04/14

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA.** - Enplegu Sistema Nazionala. - ESS/381/2018 Agindua, apirilaren 10ekoa, Enplegu Sistema Nazionalaren baterako zerbitzu-zorroaren protokoloak garatzeko erreferentziako gida teknikoa onartzen duena. 5106 xedapena - 112 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/04/12

- **EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 50/2017 FORU DEKRETUA, apirilaren 10ekoa. Honen bidez, Txeko teknologikoak 2018 programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dira. 15 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2018/04/09

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 167/2018 Foru Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita 558 ereduak, garagardoaren gaineko zerga. Garagardo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena izenekoa. 2310 xedapena – 3 or.

2018/04/11

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 155/2018 Foru Agindua, martxoaren 28koa, 2017ko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituenak. 2315 xedapena – 107 or.

2018/04/13

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** -170/2018 Foru Agindua, apirilaren 5koa, 2017ko errenta eta aberastasuna aitortzeko kanpainako zerbitzuen karta onartzen duena. 2430 xedapena – 10 or.

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es

.....

MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO